

EUSKOTRENEK ZERBITZUA INDARTUKO DU DONOSTIAKO ETA DURANGOKO INAUTERIAK DIRELA ETA

Euskotrenek trenen zerbitzua indartuko du joan-etorriak errazteko Donostiako eta Durangoko Inauteriak direla eta. Bilbon eta Gasteizen ere Inauteriak tranbien ohiko funtzionamenduari eragingo dio.

TRENA

Donostia-San Sebastián

Donostiako Inauterirako errefortzua otsailaren 23an, igandean, arratsaldean egingo da. Euskotrenek trenak 15 minutuz behin eskainiko ditu Irun-Amara tartean. Horrela, larunbatean zein igandean arratsaldean, jai ekitaldiak kontzentratzen direnean, tren baten zerbitzu bera eskainiko da hamabost minutuz behin.

Gainerako trenak ohiko ordutegian ibiliko dira.

Durango

Durangoko Inauteriak direla eta, joan-etorriak errazteko helburuarekin, otsailaren 22an trenen zerbitzua indartuko da. Inauterira joateko ohiko zerbitzua eskainiko da, nahiz eta egunaren bukaeran Matiko/Lemoatik eta Zaldibarretik Durangora zenbait irteera berezi egin.

Otsailaren 22tik 23rako gau osoan zehar gaueko zerbitzua egongo da. E1 linean larunbatetako gaueko ohikoa (bi orduz behin) Zaldibarrera eta Amorebieta/Matikora zenbait trenekin indartuko da.

TRANBIA

Bilbo

Bilbotik Inauterietako desfilearen ibilbidea dela eta, larunbatean, otsailaren 22an, arratsaldeko zerbitzuan mozketa bat burutuko da:

- Arriaga – Pio Baroja: zerbitzurik gabe 17:58tik 21:28ra
Mozketaren ondorengo lehengo irteerak:
 - Atxuri – La Casilla: 21:28an
 - La Casilla – Atxuri: 21:11n
- Atxuri – Arriaga: 18:13tik 21:28ra zerbitzua 15 minuturo.
Arriagatik lehenengoa 18:18an eta Atxuritik 18:13an
- La Casilla – Pio Baroja: ohiko zerbitzua

Mozketaren ondorengo lehengo irteerak:
 - Atxuri – La Casilla: 21:28an
 - La Casilla – Atxuri: 21:11n

Gainerako zerbitzuak ohi bezala ibiliko dira.

Gasteiz

Ondorengo mozketak egongo dira otsailaren 22an eta 23an:

Otsailak 22

Zirkulazioa moztuko da Angulema-Legebiltzarra artean arratsaldeko 18:00etatik zerbitzuaren bukaerararino. Gainerako zerbitzua ohi bezala ibiliko da:

Azken irteera Ibaiondotik 17:30ean
 Azken irteera Abetxukotik 17:34an
 Azken irteera Floridatik Abetxukora 17:52an
 Azken irteera Unibertsitatetik Ibaiondora 17:41n

Otsailak 23

Zirkulazioa moztuko da Legebiltzarra artean arratsaldeko 12:00etatik 15:00era. Gainerako zerbitzua ohi bezala ibiliko da:

Azken irteera Ibaiondotik 11:30ean
 Azken irteera Abetxukotik 11:34an
 Azken irteera Floridatik Abetxukora 11:52an
 Azken irteera Unibertitatetik Ibaiondora 11:41n

Lehen irteera Ibaiondotik 14:45ean
 Lehen irteera Abetxukotik 14:49an
 Lehen irteera Floridatik Abetxukora 15:07an
 Lehen irteera Unibertitatetik Ibaiondora 14:56an

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete Euskotreneko langileekin zerbitzatutako geltokietan eta geralekuetan, Euskotreneko APP ofizialean, konpainiaren www.euskotren.eus web gunean eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

Igorpen data: osteguna, 2020ko otsailaren 20an

Euskadi, auzolana, bien común

